




# 2020 MUTUALIA SARIEN

## 9. Edizioa

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO BERRIKUNTZAREN SARIA  
BERDINTASUNA ENPRESAN SARIA



**MUTUALIA**k, Gizarte Segurantzarekin lankidetza duen 2. zk.ko Mutua izanik **MUTUALIA SARIEN 9. edizioa** antolatu du, laneko berdintasuna, segurtasuna eta osasuna sustatzeko.

## Sariaren oinarriak

### 1. Helburua eta kategoriak

Mutualia sarien bitartez, kategoria bakoitzean Mutualiaren kolektiboaren baitan elkartekideak diren enpresak eta langile autonomoak aitortu, ezagutarazi eta sustatu nahi dira. Enpresa eta langile horiek nabarmendu egin dira laneko arriskuaren prebentzioaren esparruan ikerketa, teknologia-garapen edo berrikuntza proiektu bat garatu dutelako, edo enpresetan genero berdintasuna sustatzen ahalegindu direlako eta praktika egokiak gauzatu dituztelako.

**Prebentzioko berrikuntzaren Saria** aurkezteko proiektuetan garatu ahal izango dira edozein prebentzio esku-hartze, sistema edo tresna berritzaile, irakasteko material, baliabide teknologiko, kudeaketa metodo eta abar, edo enpresetako pertsonen eta horien ingurunearen antolakuntza, laneko baldintzak eta ongizatea hobetzen laguntzeko bestelako jarduerak.

**Berdintasun Saria** aurkeztutako proiektuetan garatu ahal izango da enpresan eta haren inguruan sexu arrazoiek eragindako diskriminazio tratuak prebenitzen eta genero berdintasuna hobetzen laguntzeko balioko duen prebentzio, prozedura, metodologia edo bestelako edozein esku-hartze.

### 2. Hautagaiak

Hautagaiak aurkezteko unean eta epaimahaiaren erabakia hartzerakoan Mutuarian atxikita dauden enpresa elkartekide eta langile autonomo guztiek izango dute sari hau eskuratzeko aukera.

### 3. Aurkezteko dokumentazioa eta epea

Izangai diren enpresek ondorengo dokumentazioa bidali beharko dute **2020ko martxoaren 31** baino lehen:

- Aurkezten diren kategoriako proiektuaren inprimakia (**Prebentzioko berrikuntzaren Saria** edo **Berdintasun Saria**). Inprimakiak Mutualiaren webgunean deskarga daitezke (**www.mutualia.eus**) edo Mutualiako Prebentzio Aholkularitzan eskatu (**prebentzioa@mutualia.eus**). Inprimakian xehetasunez deskribatuko da enpresak garatu duen jarduerak edo proiektu bereizgarria edo berritzailea.
- Proiektuaren aurkezpena powerpointean, Segurtasun Eguneko ekitaldian epaimahaikideen eta bertaratutako gainerako lagunen aurrean proiektuaren aurkezpen publikoan erabiltzeko.
- Aurkeztutako proiektuaren inguruko informazioa zabaltzeko egokitutako dokumentazio guztia.

Dokumentazioa formatu elektronikoan aurkeztuko da, eta hona bidali beharko da: **prebentzioa@mutualia.eus** (Tel. 944 042 105).

Helarazitako dokumentazioa Mutualiaren esku geldituko da, baldin eta egileak hori eragozten ez badu, desadostasuna berariaz adierazita.

### 4. Hautagaitzen aurkezpen publikoa

Hautagaitzak jendaurrean aurkeztea, baloratzeko, epaimahaiaren erabakia eta sari banaketako ekitaldia Mutualiak **2020ko maiatzaren 8an** egingo duen **Segurtasunaren Egune**ko ekitaldian zehar egingo dira; egun hori laneko segurtasunaren eta osasunaren nazioarteko eguna ospatzeko antolatzen da.

Mutualia sarietako bi kategorietan irabazteko hautagaitza finalistek ekitaldi horretan egingo dute nork bere proiektuaren aurkezpen publikoa, hautagaitza bakoitzeko gehienez 7 minutu iraungo duen aurkezpenarekin.

### 5. Hautagaiak aukeratzeko

Proiektu saridunak hautatzeko, **Segurtasunaren Egune**ko ekitaldiko epaimahai profesionalaren eta bertaratutako jendearen bozketa mistoa erabiliko da. Epaimahai profesionalaren botoak % 60ko balioa izango du, eta bertaratutako kideen botoak % 40koa.

**Prebentzioko berrikuntzaren** kategorian, epaimahai profesionala Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzako, Osalaneko, Confebaskeko eta Mutualiako kideek osatuko dute.\* **Berdintasuna enpresan** kategorian, epaimahai profesionala Eusko Jaurilaritzako (Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila), Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzako, Euskaliteko eta Mutualiako kideek osatuko dute.\*

\* Epaimahaiaren osakeran alaketak izan daitezke.

### 6. Hautagaitzak ebaluatzeko irizpideak

**Prebentzioko berrikuntzaren** kategorian aurkeztutako hautagaitzak baloratzeko, gehitutako hobekuntzak edo alderdi bereizgarriak, eskuragarritasuna eta beste enpresa batzuetan aplikagarriak izatea aztertuko dira. Enpresak duen ibilbidea hartuko da aintzat, hark izandako ezbehar-tasa eta garatu izan duen prebentzio kudeaketa. **Berdintasuna enpresan** kategorian aurkeztutako hautagaitzak baloratzeko, genero diskriminazioaren prebentzioa eta berdintasunaren alde gauzatzeko praktika egokiak hartuko dira aintzat.

Bi kasu horietan, saria aurkezteko egunean proiektua txertatuta, garatuta edo argitaratuta izatea aldeko puntutzat joko da, bai eta horren emaitzak ere.

### 7. Mutualia Sariak banatzeko ekitaldia

Epaimahai mistoaren erabakia Segurtasunaren Eguneko ekitaldian bertan jakinaraziko da Bilbon, 2020ko maiatzaren 8an.

Bi kategorietako sari banaketa epaimahai mistoak erabakiak hartu ostean egingo da, eta bi kategorietan saria eskuratu duten enpresa edota langile autonomoek eskultura bana jasoko dute, kasu bakoitzean segurtasunaren arloan eta laneko osasunaren edo berdintasunaren arloan egindako ahalegina aitortuko duena.

**Prebentzioko berrikuntzaren** kategorian irabaziko duten langile eta enpresek **Carlos Ciriza** artistaren **“Punto Central”** izeneko eskultura jasoko dute, enpresek laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan egindako ahalegina aitortzen duen artelana, alegia. Kategoria horretako accesitek **“Punto Central”** artelana irudikatzen duen Carlos Cirizak berak egindako serigrafia bana jasoko dute.

**Berdintasuneko** kategorian saritutako langile edo enpresek **Paola de Miguel** artistaren **“Vínculo”** izeneko eskultura lortuko dute, bi gizakiren arteko batasuna eta izaera berdina irudikatzen duen obra minimalista, alegia. Kategoria horretako accesitek **“Vínculo”** artelana irudikatzen duen Paola de Miguel berak egindako serigrafia bana jasoko dute.

### 8. Datuak babestea

Pertsona fisiko parte-hartzaileek edota parte hartzen duten enpresen harremanetarako kide gisa agertzen diren pertsona fisikoek, sarian parte hartze hutsarekin, baimena ematen dute euren helarazitako datu pertsonalak fitxategi batean jaso, txertatu, eskuratu eta tratatzeko. Fitxategi horren titularra Mutualia da, Gizarte Segurantzarekin lankidetza duen 2 zk.ko Mutua, fitxategiaren erantzukizuna duen eta helbidea Bilboko (48009) Henao kaleko 26an duen erakunde gisa, aipatutako lehiaketa kudeatzeko eta hedabideetan, telematikoki barne, iragartzeko helburuarekin, Mutualiaren webgunean argitaratutako oinarri hauen arabera. Datuak konfidentzialak dira, eta Mutualiak bakarrik erabili ditzake. Interesdunek araudiak aitortzen dizkien eskubideak baliatu ahal izango dituzte, eta, edonola ere, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, kentzeko, mugatzeko, transferitzeko eta haien aurka egiteko eskubideak. Horretarako, idazki bat bidali beharko dute lehen aipatutako helbidera, nortasun-agiri ofizialaren kopiaekin batera.

Mutualia sarietan parte hartzen duten enpresetako ordezkariak, hori guztia dela-eta, berariaz onartuko dute beren esku-hartze publikoak edozein bitarteko telematikoren bidez grabatu edota hedatu ahal izatea, eta, ondoren, Mutualiaren edo ekitaldiko erakunde laguntzaileen webgune korporatiboetan eta hedabideetan argitaratzea. Horrenbestez, berariaz baimena ematen dute euren irudi pertsonala eta datu pertsonalak jasotzeko eta tratatzeko.

### 9. Jabetza intelektual

Sarietan parte hartzen duten enpresek bidalitako proiektuen aurkezpenak Mutualiak antolatutako Segurtasunaren Eguneko ekitaldian proiektatuko dira. Epaimahai profesionalari enpresa hautagaiak bidalitako dokumentazio osoa helaraziko zaio (formularioa eta interesgarritzat jotzen den gainerako dokumentazioa), balorazioa egin dezan. Proiektu bakoitzaren laburpena emango zaie ekitaldian parte hartzen duten lagunei.

Hautagaitza bakoitza defendatzeko erabili den dokumentazioaren eta aurkezpenaren jabetza intelektual enpresa hautagaiarena izango da beti; Mutualiak ezingo du erreproduzitu aldez aurretik enpresak baimenik eman gabe, eta sariak hautatzeko prozesurako soilik erabiliko da.

Mutualiak gonbidatu egingo ditu Mutualia sarietan parte hartuko dutenak **GureEsperientziaPartekatua** proiektuan parte har dezaten; horren bitartez emango dira ezagutzera proiektu horiek eta horien alderdi garrantzitsuak.

### 10. Oinarriak onartzea

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar honako oinarri hauek guztiz onartzea. Horietan jaso gabeko edozein gorabehera antolatzaileek ebatziko dute. Edozein zantza edo kontsultarako, ondorengo telefono zenbaki hauetara deitu: **944 042 105 / 943 440 526 / 945 009 077**.

[www.mutualia.eus](http://www.mutualia.eus)